

DURANGOKO AZOKA

Hona hemen Durangoko lehenengo azokako informazioa eta urte hauetan izan duen bilakaeraren informazioa.



Durangoko azokan, lehenengo euskal liburu eta disko azoka 1965ean egin zen, Andra Mariko elizpean. Azoka helburu nagusi eta argia zuen: Euskal Herriko liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea.

Elizpean merkatua izaten zen larunbata goizetan eta arratsalderako, egin beharreko lana bukatu ondoren. Liburu eta diskoen azoka jartzen zuten. 19 erakusle eduki zituen Durangoko hasierako azoka. 1967.an ez zen Azokarik egin, Andra Mari elizan konpontze-lanak egin zirelako eta baldintza egokietan ezin zitekeelako ezer antolatu.



1974tik 1996ra arte, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka merkatu plazan egin zen. Denbora tarte horretan, Gerediaga Elkartek hiru urtez jarraian Euskarazko Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen: 1986tik 1988ra. Horrek antolatzea ez zuen izan benefiziorik langileentzako, horregatik kentzea erabaki zuten.

Hasieratik, euskaraz eta euskal munduaz ere zerikusia duten ekoizpenen erakusketa eta salmentarako azoka izan da.

Durangora etortzen zen jendetzari esker 2003tik Landako erakustazokara salto egiteko aupada nahikoa esan zuen Azokak.

Gaur egun:

Gaur egun, Euskal Herriko idazle eta abeslarien lan berriak aurkezten dituzte azokan. Lan berriak, aretoan, argitaletxean, diskoetxean edo kultur elkartean aurkezten dituzte. 12 urteko umeak eta gazteak literatura munduan gerturatzeko, Haur Literatura Aretoa sortu zuten. Sortzaileek Ahotsenea sortu zuten, beraien proiektuak ezagutarazteko; Eszenatokia eta Irudienea egin zuten, ikus-entzun eta arte eszenikoak ikusteko eta gune berriena, kultura digitalaren eredu berriak erakusteko eta esperimintatzeko sortu dute.

Azokak, Durangoko hiria, kulturaren plaza bihurtu nahi du.

Bukatzeko, azken edizio honetan, jende gutxi joan da beste urteetako bisitariak ikusten baditugu. Iritzi ezberdinak daude, batzuei gustatu zaie azoka eta besteei ez.